

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

2016-2017KO JARDUEREN PROGRAMA

www.ehu.eus

AURKIBIDEA

1. Ikasteko unibertsitatea.....	5
2. Unibertsitate ikertzailea.....	7
3. Irakaskuntzarekin konprometituriko unibertsitatea	9
4. Aukera profesionalak eskaintzen dituen unibertsitatea	11
5. Bizikidetzarako unibertsitatea.....	12
6. Gure ingurunean errotutako unibertsitatea.....	13
7. Mundura irekitako unibertsitatea	15
8. Gizartearekin konprometituriko unibertsitatea.....	17
9. Gobernu ona sustatzen duen unibertsitatea	19

1. IKASTEKO UNIBERTSITATEA

1.1. DAGOENEO ESKAINTZEN DIREN TITULUAK HOBETZEA ETA TITULU BERRITZAILEAK ETA ERAKARGARRIAK SORTU, GIZARTEKO ERAGILEEN ETA IKASLEEN PARTAIDETZAREKIN

- 1.1.1. Graduetako curriculumen hobekuntza sustatzeko EHUdu programaren fase berri bat diseinatu, abian jarri zenetik gaurdaino izandako emaitzak abiapuntutzat hartuta.
- 1.1.2. Egungo prestakuntza eskaintza euskal gizartearen premietara egokitu dadin sustatu, titulu berriak eta erakargarriak sortuz.

1.2. GRADUONDOKO ESKAINTZA GERO ETA ESKARI ZEIN INTERES HANDIAGOA DUTEN ARLOETARA BIDERATZEN LAGUNDU

- 1.2.1. Graduondoko Ikasketen Plan Estrategikoa ezarri hiru ardatzetan: Prestakuntza-Ikerketa, Lurraldearekiko lotura eta Nazioartekotzea.
- 1.2.2. Egin beharreko izapideak hasi, UEU (Udako Euskal Unibertsitatea) UPV/EHUri atxikitako zentroa izan dadin eta "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzarako Irakasleen Prestakuntza" masterra eskaini dezan, modalitate ez-presentzian eta euskaraz.

1.3. INGURUKO PREMIEI ERANTZUNGO DIEN PRESTAKUNTZA ETENGABEKO ESKAINTZA SUSTATU

- 1.3.1. Prestakuntza etengabeko politika espezifikoa diseinatu, gizarteko erakundeekin eta enprekin lankidetzan.
- 1.3.2. Euskadi-Akitania ardatzeko beste unibertsitate batzuekin aliantzak ezarri, etengabeko prestakuntzako eskaintza partekatua garatzeko.
- 1.3.3. Esperientzia Gelen eskaintza sozio-hezitzailea sendotu.
- 1.3.4. Etengabeko Prestakuntzako Zuzendaritza sortu.

1.4. SORMENA BULTZATZEN DUTEN IKASKUNTZA EGOERA BERRIEN GARAPENA SUSTATU

- 1.4.1. Prestakuntza programetan diziplinartekotasuna sustatu, ikasleen curriculum interesei erantzutea ahalbidetuko duten eredu ireki eta malguagoak eskainiz.

1.5. GRADUKO ZEIN GRADUONDOKO IKASLEEN ARTEAN ERAGIN HANDIKO IKASKUNTZEN AUKERAK AREAGOTU

- 1.5.1. Gaitasun zientifiko eta profesionalen garapena bermatuko duten ikaskuntza metodologia aktiboen erabilera egonkortu.
- 1.5.2. UPV/EHUko erakunde, enpresa edo zerbitzu espezializatuetan kualifikazio handiko praktikak egiten dituzten ikasleen kopurua handitu.
- 1.5.3. Gradu amaierako lanak, master amaierako lanak eta doktorego tesiak inguruko hainbat erakunde eta enpresatan egiten dituzten ikasleen kopurua handitu.

1.6. GRADUETAN ETA GRADUONDOKOETAN ENPLEGAGARRITASUNARI LOTUTAKO ZEHARKAKO GAITASUNAK GARA DAITEZEN SUSTATU

- 1.6.1. UPV/EHUko ikasle guztientzat komunak izango diren zeharkako gaitasunen katalogoa diseinatu.
- 1.6.2. Ikasleen eskura jarri prestakuntza osagarria, aurrez aurrekoa edo online, haien prestakuntza premietara egokitua (teknologia berriak, testu profesionalen idazketa, artikulu zientifikoaren idazketa, bizitza aktiborako iragatea, ahozko komunikazioa, lan elkarrizketak, hizkuntza gaitasunak, etab.).

1.7. UNIBERTSITATEKO KIDE GUZTIEN ARTEAN KULTURA EKINTZAILEA SORTU

- 1.7.1. UPV/EHUk ekintzailtzaren arloan eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutzera eman ikasleen artean eta irakasle eta ikertzaileen artean.
- 1.7.2. Ekintzailtza sustatu sariak eta ekimenak hiru campusetan bultzatuz.
- 1.7.3. Gaur egun abian dauden junior enpresak mantendu eta horrelako proiektu berriak sustatu.

1.8. EGRESATUEN LANERATZEA SUSTATU

- 1.8.1. Enplegu guneen jarduera babestu eta optimizatu.
- 1.8.2. UPV/EHUk praktiken unitate bat sortu, ikastegiei curriculumeko nahiz curriculumaz kanpoko kanpo praktikak kudeatzen lagunduko diena.

2. UNIBERTSITATE IKERTZAILEA

2.1. UPV/EHUN DOKTOREGO TESI GEHIAGO DEFENDATU ETA HORIEN KALITATEA AREAGOTU

- 2.1.1. Zabalduz programari jarraipena emateko, hainbat erakunderekin lankidetzan gauzatzeko eta batera finantzatutako doktoregoetarako deialdiak diseinatu.

2.2. IKERTZAILE BERRIEI LAGUNTZEA, BELAUNALDI ALDAKETA EGOKIA BERMATU

- 2.2.1. Ikertzaile berriek ikerketa proiektuetako lidergoa lortzeko aukera izan dezaten sustatu.
- 2.2.2. Ikerketa taldeei laguntza eman, ikertzaile berriak har ditzaten.

2.3. TRADIZIO IKERTZAILE TXIKIKO ARLOETAN IKERTZEKO KULTURA SUSTATU

- 2.3.1. Tradizio ikertzaile txikiko arloetan ikerketa talde berrien sorrera sustatu.
- 2.3.2. Berriak ez diren doktoreak ikerketa talde egonkortuetan edo sortuberrietan sartzeko pizgarriak ezarri.
- 2.3.3. Doktore ez diren irakasleei doktorego tesiak egiteko laguntza eman, irakats betebeharra murrizteko programa sustatuz.

2.4. IKERKETA JAKINTZA ADAR BAKOITZAREN PREMIEN ETA EGOERAREN ARABERA INDARTU

- 2.4.1. Taldeen I+G+Bren kalitatea monitorizatu, haien jasagarritasunerako eta bideragarritasunerako.
- 2.4.2. Azpiegiturak, laguntzaileak eta baliabide bibliografikoak ikertzaileen premietara egokitu.
- 2.4.3. Jakintza arlo guztietako jarduera ikertzailea babestuko duten ikerketako hiru zuzendaritza sortu.

2.5. IKERKETA TALDEEN ARTEKO LANKIDETZA ETA JAKINTZA TRUKAKETA BULTZATU

- 2.5.1. Nazioarteko ikerketa taldeekiko lankidetzak sustatu, lankidetzak hori mesedetuko duten deialdien bidez.

2.6. NAZIOARTEAN ERREFERENTZIAZKOAK DIREN ARGITALPENEN KOPURUA HANDITU JAKINTZA ADAR GUZTIETAN

- 2.6.1. Nazioartean erreferentziazkoak diren artikuluen argitalpena sustatzeko mekanismoak ezarri (adib., konpromiso dokumentuak), jakintza adar bakoitzaren egoera aintzat hartuta.
- 2.6.2. Ikertzaileen ekoizpen zientifikoa aztertu, askotan aipatzen dituzten pertsona (Highly Cited Persons) izan daitezkeenak antzemateko eta horiei laguntzeko.
- 2.6.3. Talde sortuberriari babes handiagoa eman, sorrerako eta aurkezpeneko hasierako faseetan laguntzeko politiken bidez.

2.7. LURRALDEAREKIN LANKIDETZAN ARITZEKO KULTURA SUSTATUKO DUEN ERAKUNDE IREKIA ETA BERRITZAILEA IZAN

2.7.1. Gure ikertzaileak inguruko enpresa eta erakundeetara eta profesionalak gure unibertsitatera mugitzeko programa bat sortu.

2.8. HAZKUNDE ADIMENDUN ETA JASANGARRIAN ERREFERENTZIAZKO ERAGILE IZAN EUSKAL HERRIA SOZIOEKONOMIKOKI ERALDATZEKO

2.8.1. Enpresei, erakundeei eta oro har gizarteari bideratutako komunikazio jarduerak garatu, UPV/EHUK dituen I+G+Bren ahalmenak eta emaitzak ezagutzera emateko.

2.8.2. Ikerketa egitura berriak sortu, bai Nazioarteko Bikaintasun Campusaren eta Euskadiko RIS3 estrategiaren eremuan, bai kanpoko laguntza duten beste arlo batzuetan.

2.9. EGITURA SOZIOEKONOMIKORA HURBILDU UPV/EHU-KO JAKINTZA ETA GAITASUN ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOAK

2.9.1. UPV/EHUren eta enpresen arteko lankidetzak sustatu Europako partenariatuetan, baita ekimen handietako partaidetzak ere (Horizon 2020, Egitura Funtsak 2014-20, Knowledge Innovation Communities -KIC,...), horrelakoetan jasotako emaitza % 25 handitzeko.

2.9.2. Ikerketa taldeei eskaintza teknologikoa merkaturatzen lagundu, enpresekiko kontratuak eta patenteen nahiz software erregistroen lizentziamendua areagotzeko.

2.9.3. Komunikazio zientifikoko programak sustatu, hainbat egitura eta ekitaldiren bidez: Kultura Zientifikoko Katedra, Zientziaren Astea, gazteak laborategietan...

3. IRAKASKUNTZAREKIN KONPROMETITURIKO UNIBERTSITATEA

3.1. UNIBERTSITATEKO KIDEEK ETA EUSKAL GIZARTEAK IRAKASKUNTZAREN KALITATEARI GARRANTZI HANDIAGOA EMAN DIEZAIOTEN LORTU

- 3.1.1. Garapen akademiko profesionaleko estrategiak indartu.
- 3.1.2. UPV/EHUko irakasle onenek irakasleak prestatzeko programetan parte har dezaten lortu.
- 3.1.3. Kalitatezko irakaskuntzari prestigioa eman, aintzatespen publikoaren bidez.

3.2. IRAKASKUNTZA JARDUERA EBALUATZEKO PROGRAMEN ERABILERA NORMALDU

- 3.2.1. Ebaluazio prozedurak mailakatu, irakaskuntzaren garapenean gaindi daitezkeen mugarriak ezartzeko.
- 3.2.2. Dozentiaz programa kanpotik egiaztatu.

3.3. TITULUEN ETA IKASTEGIEN KALITATEAREN KUDEAKETAN LIDERGO PARTEKATUA INDARTU

- 3.3.1. Tituluek eta ikastegiek egiaztapen instituzionala lor dezaten lagundu.
- 3.3.2. Zuzendaritza taldeei (dekanotza/zuzendaritza taldeak eta sailtakoak) kudeaketa aurreratuko ereduari buruzko prestakuntza eman.

3.4. SINERGIAN ETA JOERA PARTEKATUETAN (KOMUNIKAZIOA, ELKARREKIKO AITORPENA ETA ILUSIOA) OINARRITUTAKO ANTOLAKUNTZA KULTURA SUSTATU

- 3.4.1. Ikastegietako barne dinamika babestu eta indartu (EHUdu programa).

3.5. PRESTAKUNTZA ESKAINTZAREN, PROGRAMA OSAGARRIEN ETA BESTELAKO JARDUEREN KOMUNIKAZIOA ERRAZTU

- 3.5.1. Lanbide Heziketako eta Batxilergoko sareekiko harremanak sendotu.
- 3.5.2. Eskaintza akademikoa ezagutzera eman euskal diasporan.

3.6. UPV/EHUK BERE INGURUNEARI EGITEN DION EKARPENA EZAGUTZERA EMAN

- 3.6.1. UPV/EHUko profesionalen presentzia areagotu komunikabideetan.
- 3.6.2. Zientziak gizartean duen dibulgazioa areagotu.

**3.7. TOKIKO ZEIN NAZIOARTEKO ESPARRUETAN UPV/EHUREN
IRAKASKUNTZA JARDUERA BERRITZAILEA IKUSARAZI ETA ZABALDU**

- 3.7.1. Harremanak sendotu beste unibertsitate publiko batzuekin, batik bat komunikazio hizkuntza gisa euskara darabiltenekin, irakaskuntza-ikaskuntzako esperientzia berritzaileak partekatzeko.
- 3.7.2. Nazioarteko inguruneetan lan egiten duten hezkuntza berrikuntzako espezialisten talde gehiago sortu.

4. AUKERA PROFESIONALAK ESKAINTZEN DITUEN UNIBERTSITATEA

4.1. IRAKASLE-IKERTZAILEEN IBILBIDE AKADEMIKOAREN GARAPENA ETA PROMOZIOA BABESTU

4.1.1. Irakasle eta ikertzaileen promozioa errazteko prestakuntza jarduerak garatu.

4.2. IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN BELAUNALDI ALDAKETA EGOKIA BERMATU

4.2.1. Prestakuntza orokorreko programa bat ezarri (irakaskuntzakoa, ikerketakoa eta kudeaketakoa), irakasle eta ikertzaile berriak egiaztatzeko prozesuan lagungarria izango dena.

4.2.2. Sailetan txertatutako tutoretza estrategiak finkatu, irakasle berriei euren ibilbide akademikoaren diseinuan eta garapenean aholkua eta babesa emateko.

4.3. UNIBERTSITATEAREN ZEREGINAREKIN BAT DATORREN AZP-KO LANGILEEN IBILBIDE PROFESIONALA GARATZEKO BALDINTZAK HOBETU

4.3.1. Lanpostuen balorazio prozesuei heldu eta monografiak eguneratu.

4.4. KUDEAKETAKO EGITURA UPV/EHUREN EGUNGO PREMIETARA EGOKITU

4.4.1. Erreferentziako Langile Zerrenda eguneratu eta 2014ko irailaren 17an sinatutako laneko bermeen hitzarmena garatu.

4.4.2. Unibertsitateko zerbitzuen egitura oso-osorik berraztertu eta zerbitzu horietara moldatutako antolakuntza modu eta kudeaketa prozedura berriak ezarri.

4.5. AZP-KO LANGILEEI LAGUNTZA EMAN IBILBIDE PROFESIONAL OSOAN

4.5.1. Langile berriei sarrera erraztuko dien harrera plan bat prestatu.

4.6. PERTSONALAREN OSASUN FISIKOAN, MENTALEAN ETA SOZIALEAN ERAGIN POSITIBOA DUTEN LAN INGURUNEAK SORTU

4.6.1. Lana eta familiako bizitza bateratzea erraztuko duten neurri berriak hartu.

4.6.2. Telelanaren ezarpenean aurrera egin.

4.7. IRAKASLE-IKERTZAILEEN ETA AZPKO LANGILEEN ARTEAN PRESTAKUNTZA PARTEKATUA SUSTATU ETA GARATU

4.7.1. Laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntza eta informazioa sustatu.

5. BIZIKIDETZARAKO UNIBERTSITATEA

5.1. AZPIEGITURAK PRESTAKUNTZAKO ETA IKERKETAKO PREMIA BERRIETARA EGOKITU

- 5.1.1. Harremanak areagotu Eusko Jaurlaritzarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Bilboko Udalarekin, Medikuntza eta Erizaintza Fakultate berria eraikitzeko Basurtuko Unibertsitate Ospitalearen ondoan.
- 5.1.2. Unibertsitatearen espazio eta instalazio guztietan bizigarritasun eta lan baldintzak hobetu.

5.2. UNIBERTSITATEKO ESPAZIOEN IRISGARRITASUNA HOBETU

- 5.2.1. Irisgarritasun arazoak dituzten pertsonen elkarrekin harremanetan jarri, zer premia dituzten ezagutzeko.

5.3. ESKAINITAKO ZERBITZUEN KALITATEA HOBETU

- 5.3.1. Unibertsitateko liburutegietako zerbitzuen hobekuntzan aurrera egin eta ikastegiko gelen ordutegia zabaltzeko aukera aztertu.
- 5.3.2. Ikasle elkarreentzako erabilera komuneko espazioak eskaini campus guztietan.

5.4. BIZI OHITURA OSASUNGARRIAK IZATEKO LAGUNGARRIAK DIREN EKIMENAK BULTZATU

- 5.4.1. Inguruneke erakundeekin lankidetzaren egonkorrerako esparruak bultzatu, kirol eskaintza erakargarria eta kalitatezkoa eskaintzeko.
- 5.4.2. Jantokien, kafetegien eta vending makinaren enpresa esleipendunekin elikagai ekologiko eta osasungarrien erabilera adostu.

5.5. KULTURA UNIBERTSITATEKO BIZITZAN TXERTATU

- 5.5.1. Inguruko kultura eragileekin eta erakunde publiko zein pribatuekin sinergiak areagotu, kultura jarduerak sustatzeko.
- 5.5.2. Ikasleekin komunikatzeko bideak ezarri, kultur eta kirol arloko politikak elkarrekin diseinatzeko.
- 5.5.3. Hainbat kultur eta kirol jarduerak berezi bultzatu.
- 5.5.4. UPV/EHUko Orkestra Sinfonikoaren sorrera bultzatu.

5.6. CAMPUS JASANGARRIKO ESTRATEGIA OROKORRA GARATU

- 5.6.1. Bidegorrien eraikuntza babestu eta bizikleta garraiobide alternatibo gisa erabil daitekeela ohartarazi, unibertsitarioentzako mailegu zerbitzu publiko baten sorrera bultzatuta.
- 5.6.2. Garraio publikoen joan-etorrien iraupena murrizteko eta kostua txikitzeko formulak proposatu erakundeei.
- 5.6.3. Autoa partekatzeko programa eta erabiltzaile askoko ibilgailuak aparkatzeko programak mantendu eta sustatu.

6. GURE INGURUNEAN ERROTUTAKO UNIBERTSITATEA

6.1. EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA ESKAINTZA HANDITU

- 6.1.1. Euskarazko nahitaezko irakasgaien eskaintzan aurrera egin.
- 6.1.2. Euskarazko hautazko irakasgaien eskaintza sustatu hizkuntza horretan hautazko irakasgai gutxi dituzten graduetan.
- 6.1.3. Euskarazko etengabeko prestakuntzaren eskaintza babestu.

6.2. BIKAINTASUNA LORTU EUSKARAZKO IRAKASKUNTZAN

- 6.2.1. Terminologia teknikoaren garapena sustatu.
- 6.2.2. Euskarazko eskuliburuaren ekoizpena babestu.
- 6.2.3. Euskararen III. Plan Gidariaren (2018-2022) oinarriak diseinatu.

6.3. EUSKARAZ ARRETA EGOKIA EMAN PUBLIKOAREKIN HARREMAN ZUZENA DUTEN LANPOSTUETAN

- 6.3.1. AZPko langileak liberatzeko programetan lehentasuna eman publikoarekin harreman zuzena duten lanpostuetako zerbitzua hobetzera bideratutakoei.
- 6.3.2. Administrazio eta zerbitzuetako langileek unibertsitateak erabilgarri dituen hizkuntza tresnak erabil ditzaten sustatu.

6.4. EUSKARAREN ERABILERA SOZIALA SUSTATU IRAKASKUNTZAKO ETA UNIBERTSITATE BIZITZAKO EREMUETAN

- 6.4.1. Euskararen erabileran eta presentzian indarguneak eta hobetu beharreko alderdiak identifikatu, kanpo ebaluaziorako prozesuen bidez.

6.5. EUSKARAZKO EKOIZPEN ZIENTIFIKOA BULTZATU, BAITA HAREN HEDAPENA ETA DIBULGAZIOA ERE

- 6.5.1. Doktorego tesiak euskaraz egitea sustatu.
- 6.5.2. Euskara euskarri digitaletan (blogak, Wikipedia...) ager dadin bultzatu.
- 6.5.3. Ekitaldi zientifikoetan euskararen presentzia sustatu.

6.6. EUSKAL ARTEAREN ETA KULTURAREN PRESTAKUNTZAN, IKERKETAN ETA HEDAPENEAN ERREFERENTE IZAN

- 6.6.1. Euskal artearen eta kulturaren adierazpenen azterketarekin eta hedapen sozialarekin zerikusia duten jarduerak bultzatu eta zabaldu.

6.7. UPV/EHUREN IDENTITATEA EZAGUTZERA EMAN ETA HAREN POTENZIAL AKADEMIKOAREN IKUSGARRITASUNA ETA HEDAPENA HOBETU

- 6.7.1. Doktore euskaldunei eta euskal diasporaren ikertzaile zein adituei buruzko informazioa bilduko duen aplikazio bat garatu eta zabaldu.

- 6.7.2. Hedabideekin aldizkako bilerak antolatu, UPV/EHUn gauzatzen diren jarduera akademikoen berri emateko gizaritari.

6.8. GIZARTE ETA KULTURA ARLOETAKO ERAGILEEKIKO HARREMANA INDARTU

- 6.8.1. EHUgune topagunea indartu.
- 6.8.2. Gizarte Kontseiluarekin lankidetzan eragile ekonomiko zein sozialekin topaketa sektorialak sustatu, hainbat gai landu ahal izateko; hala nola, baterako ikerketa proiektuak eta praktikak inguruko enpresa nahiz gizarte erakundeetan egiteko aukerak.
- 6.8.3. Erakunde katedrei babesa eman.

7. MUNDURA IREKITAKO UNIBERTSITATEA

7.1. ALIANTZA ESTRATEGIKOAK EZARRI, PRESTAKUNTZAKO, IKERKETAKO, GARAPENEO ETA BERRIKUNTZAKO JARDUERETAN LANKIDETZAN ARITZEKO

- 7.1.1. UPV/EHUK Latinoamerikan duen presentzia sendotu, lankidetzan jardunda unibertsitateekin eta goi mailako hezkuntza erakundeekin. Zehazki, Graduondoko Latinoamerikako Sarea finkatu.
- 7.1.2. Nazioarteko Bikaintasun Campusa indartu.

7.2. EUROESKUALDEKO ERAKUNDEEKIN DUGUN LANKIDETZA SENDOTU

- 7.2.1. Akitania-Euskadi-Nafarroa sarean dugun presentzia eta partaidetza indartu.
- 7.2.2. Bordeleko Unibertsitatearekin batera Mugaz Gaindiko Euroeskualdeko Campusa garatu.
- 7.2.3. Akitania-Euskadi-Nafarroa sareko unibertsitateekin batera lan egin, aliantza partekatuak ezartzeko mugikortasunerako, tesien baterako tutoretzarako eta titulu bikoitzetarako.

7.3. NAZIOARTEKO RANKING-ETAN HOBETZEKO AUKERAK IDENTIFIKATU

- 7.3.1. UPV/EHUko jarduera akademikoa egokiro islatuko duten ranking-ak identifikatu.

7.4. GURE PRESTAKUNTZA ESKAINTZAREN NAZIOARTEKOTZEA BULTZATU

- 7.4.1. Ikasleei profesionalki hainbat herrialdetan jarduteko prestakuntza eskainiko dieten titulu bikoitzak eta baterako tituluak sustatu nazioarteko bazkide estrategikoekin.
- 7.4.2. Mugikortasun birtuala sustatu.

7.5. UNIBERTSITATEKO TALDE GUZTIEN HIZKUNTZA GAITASUNEN PRESTAKUNTZA ETA EGIAZTAPENA SUSTATU

- 7.5.1. Unibertsitateko ikasleei eta langileei erraztasunak eman atzerriko hizkuntzen ikastaroetan eta egiaztapen probetan parte hartzeko.

7.6. UPV/EHU-REN PARTAIDETZA ETA LIDERGOA AREAGOTU EUROPAKO ETA NAZIOARTEKO IKERKETA PROIEKTUETAN

- 7.6.1. Europako Proiektuen Bulegoa indartu, elkarlan hertsian jardunda Eusko Jaurlaritzak eta CRUEk Bruselan dituzten bulego banakin.

7.7. EUROPA ETA EUROPAZ KANPOKO HAINBAT HERRIALDETAN IKASTEKO ETA PRAKTIKAK EGITEKO MUGIKORTASUNA AREAGOTU ETA DIBERTSIFIKATU

- 7.7.1. Hitzarmenak sustatu edo/eta sendotu, funtsean lehentasunezko zat jotzen diren eremu geografikoetan.
- 7.7.2. *Study Abroad* programak antolatu, bazkide diren unibertsitateekiko harremanak indartzeko, bereziki euskal ikasketak eskaintzen dituzten unibertsitateekiko harremanak.

7.7.3. *Staff Weeks* direlakoak antolatu eta nazioarteko azoketara joan.

7.8. IKASLE, AZPKO LANGILE ETA IRAKASLE ZEIN IKERTZAILEENTZAKO MUGIKORTASUN PROGRAMAK FINKATU

7.8.1. Deialdi espezifiko bidez unibertsitateko talde guztien mugikortasuna babestu.

7.8.2. Mugikortasun programak kudeatzeko araudia egin.

7.8.3. Egiturak eta zerbitzuak mugikortasun programa guztien kudeaketa premietara egokitu.

7.9. NAZIOARTEKO BISITARIAK ETOR DAITEZEN SUSTATU

7.9.1. Ikasle nahiz irakasle eta ikertzaile bisitariari harrera egiteko zerbitzua hobetu.

7.9.2. Ikasle bisitariak hartzeko *Buddy* programa finkatu eta ikasle horientzako harrera eta orientazio saioak antolatu.

7.9.3. Atzerritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak kudeatu, baita lortutako maila egiaztatu nahi dutenentzako azterketak ere.

8. GIZARTEAREKIN KONPROMETITURIKO UNIBERTSITATEA

8.1. IKASLEEN PREMIEN ANIZTASUNARI ERANTZUN

- 8.1.1. Zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleei ikasten hasi eta jarraitzeko erraztasunak eman, hainbat laguntza motaren bidez.
- 8.1.2. UPV/EHUk errefuxiatuei laguntzeko hartuak dituen konpromisoak garatu.
- 8.1.3. Espetxeratuta dauden pertsonen unibertsitate ikasketak egiteko dituzten aukerak areagotu eta hobetu daitezen sustatu.

8.2. UNIBERTSITATEKO JARDUERAN GENERO MAINSTREAMINGA/ ZEHARKAKOTASUNA SUSTATU

- 8.2.1. Emakumeen eta genero identitate desberdineko pertsonen ahalduntzea mesedetuko duten sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzak sustatu.
- 8.2.2. Berdintasunerako Sektorearteko Batzordearekiko lankidetzaren sendotzea eta genero zeharkakotasuna txertatu gizarte eta lan harremanetan.

8.3. DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTEN IKASLEEI BABESA BERMATU

- 8.3.1. Hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonen laguntza, bai unibertsitatean sartzen, bai ibilbide akademikoan zehar.
- 8.3.2. Dibertsitate funtzionala duten ikasleak gizarteratzearen eragile aktibo bilakatu, bai UPV/EHU, bai ingurunean, esperientzia arrakastatsuen hedapenaren eta transferentziaren bidez.

8.4. POLITIKA BERRITZAILEAK SUSTATU SORMENEZKO IRTENBIDE ERAGINKORRAK ESKAINIKO DITUEN UNIBERTSITATE JASANGARRI BAT GARATZEKO

- 8.4.1. Unibertsitateko talde guztien (AZPko langileak, irakasle-ikertzaileak eta ikasleak) arteko lankidetzaren sustatzea, unibertsitatearen jasangarritasun arazoak konpontzeko.

8.5. UNIBERTSITATEKO JASANGARRITASUNAREN KUDEAKETAN AURRERA EGIN

- 8.5.1. Ikastegiak zerbitzu kartak eta konpromiso dokumentuak egiten dituztenean jasangarritasunarekiko konpromiso zehatzak jaso ditzaten eskatu.
- 8.5.2. Era esplizituan garapen jasangarriaren parametroen baitan lan egiten duten elkarte, enpresa, erakunde publiko eta pribatuekin lehenetsutako harremanak izan.

8.6. JASANGARRITASUNERAKO, BERDINTASUNERAKO ETA GARAPENERAKO HEZKUNTZA SUSTATU, HORIEK UNIBERTSITATE CURRICULUMEAN TXERTATUZ

- 8.6.1. Jasangarritasunerako hezkuntza graduoko zein graduondoko curriculumean txertatuko duten berrikuntza proiektuak sustatu.

8.7. BAKE ETA BIZIKIDETZA KULTURA SUSTATU

8.7.1. Unibertsitateko ikasleek giza eskubideei begira duten konpromisoa sustatu.

8.8. GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ARLOKO PRESTAKUNTZAN EGITEN DEN LANA FINKATU

8.8.1. Practicum eta kanpoko praktikak elkartasunezko ekimenetan eta garapenerako lankidetzako ekimenetan egitea bultzatu.

8.8.2. Ikasleek gizarteko boluntariotzako ekimenetan parte har dezaten sustatu.

9. GOBERNU ONA SUSTATZEN DUEN UNIBERTSITATEA

9.1. E-ADMINISTRAZIOA GARATU

- 9.1.1. Kudeaketa prozedurak definitzen jarraitu.
- 9.1.2. Sistema elektronikoa arin eta erraz bidez gara daitezkeen kudeaketa prozedurak identifikatu, eta haien garapena lehenetsi.
- 9.1.3. Leihatila bakarraren eredia definitu, erabiltzaileek bertan egin ahal izateko unibertsitate izapide guztiak.

9.2. UNIBERTSITATEKO JARDUERETAN GARDENTASUN MAILA HOBETU

- 9.2.1. Konpromisoa eta Gardentasuna Fundazioak ezarritako irizpideak betetzen dituen gardentasun atari bat abian jarri.

9.3. UNIBERTSITATEKO EGITURAK EGOKITU ETA HAIEN KUDEAKETA HOBETU

- 9.3.1. Ikastegi berriekin konpromiso dokumentu bat adostu eta kudeatu.
- 9.3.2. Sailen berrantolaketa amaitu, tartean dauden eragileekin lankidetzan.

9.4. KONTABILITATE ANALITIKOKO SISTEMA MARTXAN JARRI

- 9.4.1. 2017ko ekitaldian zehar UPV/EHUko Kontabilitate Analitikoko Sistema martxan jarri.

9.5. BARNEKO ETA KANPOKO KONTROL MEKANISMOAK INDARTU, KUDEAKETA ERAGINGARRIA ETA ARDURATSUA LORTZEKO

- 9.5.1. Gastua arrazionalizatu eta baliabideak optimizatu, gastu arruntak doi daitezkeen eta zerbitzu jakin batzuen defizita murriztu dadin, betiere unibertsitateko kideen eskubideak errespetatuz eta zerbitzuen kalitateari eutsiz.

9.6. KUDEAKETA EKONOMIKO GARDENA EGIN, ERRAZA ETA ULERGARRIA

- 9.6.1. Informazio argia, eguneratua eta eskuragarria argitaratu, kontuak emateko eta gobernu ekintzak justifikatzeko.

9.7. IRAKASLE-IKERTZAILE, AZP-KO LANGILE ETA IKASLEEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANA ERRAZTUKO DUEN GIROA SORTU ERAKUNDEAN

- 9.7.1. Unibertsitatearen webgune berria diseinatzen amaitzea eta hura inplementatzen hasi.
- 9.7.2. Sare sozialen erabilera bultzatu.
- 9.7.3. Komunikazio euskarri guztiak indartu (Campusak, Adituak, liburuxka korporatiboak...).

9.8. UNIBERTSITATEKO TALDE GUZTIEK GOBERNANTZAKO ESTRATEGIETAN PARTAIDETZA HANDIAGOA IZATEAREN ALDEKO APUSTUA EGIN

- 9.8.1. Administrazioeko unitateen arteko koordinazio ekintzak abian jarri.

9.9. EHUalumni PROIEKTUA SUSTATU

- 9.9.1. Prestakuntza Eskolaren bidez EHUalumni taldearen enplegarritasuna hobetuko duten jardueren katalogo erakargarria diseinatu.
- 9.9.2. Mentoring, Enbaxadorea eta Cicerone programak finkatu.
- 9.9.3. Unibertsitate barruan eta gizartean EHUalumni sustatu, erregistro eta kolaborazio berriak erakarriz.

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea